

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

3106

AGINDUA, 2019ko ekainaren 13koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinen bidez ezartzen baitira gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-kopurua eta elkartutako ekoizleen gutxieneko kopurua, nekazarien elkartearen eta haren batasunen oilo-arrautzen sektoreko izendapena jasotzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien elkarteei eta haien batasunei buruzko urtarrilaren 30eko 10/2018 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpena elkarrekin merkaturatzen duten nekazarien elkarreak eta horien batasunak aitortzeko oinarritzko arauak ezarri ziren.

Dekretu horren 2. artikulua arabera, izendapen hori lortzeko, gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-bolumen batzuk bete beharko dira, bai eta produktu bakoitzerako edo produktu-multzoetarako elkartean gutxienez egon beharreko kide kopuru bat ere. Produktuak eta kopuruak eranskinean jasota daude. Era berean, 7.2 artikulua dioenez, nekazaritzaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren agindu baten bidez, ekoizleen elkarteei nahiz haien batasunei dagokien urtarrilaren 30eko 10/2018 Dekretuaren eranskinean jasota ez dauden produktuetarako edo produktu-multzoetarako ekoizpenaren eta negozioen gutxieneko bolumenak ezarriko dira, bai eta ekoizle elkartuen gutxieneko kopurua ere.

Oilo-arrautzen ekoizleek adierazi dute urtarrilaren 30eko 10/2018 Dekretuan xedatutakoari atxikitzeko eta sektore horretan nekazarien elkarrekin bat eratzeko interesa; beraz, gutxieneko ekoizpen- eta negozio-bolumenak ezartzen dira, bai eta ekoizle elkartuen gutxieneko kopurua ere.

Hori dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gutxieneko ekoizpen- eta negozio-bolumen hauek eta gutxieneko ekoizle elkartuen kopuru hau ezartzea, nekazarien elkartearen oilo-arrautzen sektoreko izendapena jasotzeko:

Produktua	Gutxieneko negozio-bolumena	Gutxieneko kide-kopurua	Gutxieneko ekoizpena
Oilo-arrautzak	11.000.000 €	8	10.000.000 dozena

Bigarrena.– Gutxieneko negozio-bolumen hau eta gutxieneko ekoizle elkartuen kopuru hau ezartzea, nekazarien elkartearen oilo-arrautzen sektoreko izendapena jasotzeko:

Produktua	Gutxieneko negozio-bolumena	Gutxieneko kide-kopurua	Gutxieneko ekoizpena
Oilo-arrautzak	22.000.000 €	16	20.000.000 dozena

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, agin-

dua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.— Agindu honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, nahiz eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 13a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.